

## Mutil ezkondu arte (1940-1944)

L.: ta baiginen hiru mutiko, ta nexkak e aski azkarrak, ordian, sos puxka aten iteko, muthil joan nindunan hemeetzi urthe, hemeetzi-hogoigarren urtian... Hemetzigarren urtian joana, ta mutil, ba leemiziko aldian, hemetzi... Ez zunan ez nik ina ez tratia, aitak ina zunan, ez ziakinat bate zenbat altxatu ziin, beti, ni re, mutil, kanpoko ogia re kartzen zitun ba olaxet, ardi alde aundiaekilan, ba, ba, bazunan, zernai izanik, AIniza-Bidaineko ardiak, bon, baziela bazkazkoak, oai, mendian atxikitzen nitinak, mendiko atxiitzeko, o... Mendian atxiitzeko gisan, bazela eun bat... Orotaat bostehun buru bazunan, ahariak, aharia bazunan, ehun ta berroita amar bat buru bazunan seuri aari, ahariak, animaleko saldoa, ta auzoko ehun bat ardi zunan hartzen zutena, ehun bat ardi, ta bon, ez zunan gasna iten lan aundik artan, bon esne xortaño at, bana ardien... Beexten baitzuzten, ardiak beexten ziztenan, ta ariak beex, ordian bi lekutan zitunan denak, han bazunan lana bethi, ah ba, ba, ba, egun guziz, inguatzen, ta (...) puxka at iten ninan, bana oi, oi, ez ,ez, ordian lana, haragia biziki eta kario baitzen ordian, haragia, ahariak iten zinan animaleko sosa, aharia, ta ahariai, kontserbatzen ahal zinak man... Erteko moldian, hazaldi bat, hoita bost, hoita amar ahari hazi, oai, axurian, ta hek jiten zielaikan, apepres, sei o z... Eo sei o zerraitiak, ahari ederrak inak, hek bortutik jautsi... Jausten zitunan, oai, adin arteko ahariak haragitako, ta hek bo, hek sos iten, ederrak, bena, etan kontserbatu, gero iliak, iliak ez z... Ile alde ederra biltzen zunan hetaik, ilia kario baitzen ordian, ilia pentsa! Ahariak bazin ile alde ederra, ta hartako, iliaindako re balio zinan ahariak, eh! Haragitako, hara. Geo beste leku baten egon nintzelaikan, han, berriz, gasna in ninan, ba, han gasna in ninan. Han, nunbait, eun ta laatan oi bat ardi deizten, ta bi gasna iten nitinan eun guziz, ta antxe. Ba, ba, gasna alde polita, ta hak ez nindinan ez gootik utzi, ba, nik e hartia bainin zera, ah ba, ba, ez, ez, xantiera... Armada ez baitut in, ori dinat, armadaik ez dinat in nik, chantier de jeunesse zunan gure denboran, hori en quarante un, en quarante un, zortzi ilaite, oai armadan bezala, bana armaik ez jeus e iiltzen, ez, ez, oai, (...) ta zortzi ilaite, ara, ola, armada bezala, bena deus e gabe ola, gaztiari bere adinekoak beti biltzen armadako zer berian, (...) eta guziak, geo oai, hua oai in dinat zortzi ilaite bakarrik, ta geo artzaingoa oai, bon, mutilgoa ez dun apepres, lau-hiru urteko at apepres kondatzen ahal dun, hiru urte apepres egon nizala, ta ez dinat ez biziki sosik in, ez, ez, ez, ez, azken urtian halako gasna aldia in-eta, bo, izigarrikoa bestenez, etaik ez zunan paatzen, ni harritia nun, nik eta zazpi mila bosteun lira galdin-eta, ez, ez, sei mila ta bosteun lretan urteko, sei mila bosteun lira, oai harritia nun jende batek eta bere lana iten aal dinez, bon (...) ez zunan besteik, lana iten aal dinez molde ortan geiokoik sosik gabe, ta ez zunan, neok ez zinan mutilik paatzen, ara,

alo, laborantxako den mendrena, ta mutila frango bazunan eskeinka nunahi hargina, ara, familia aundiak baitzen, ta nunbait bear egon ta sos puxka at irrazi, ta ez dun oai bezalako eta oai joaiten baitira otoan noanahi beren zerak lanak beitzute, ez, ez, ez, ordian, otoik eta ez zunan jeus e, ordian ez dun, han berian behar zinan egon gaztiak, ta donado batzu ez bazen joaiten, etxean han hurru-hurru, (...), hara geo, undar urtian, eta delako azken etxe ortan, Jatsun, hor, ba, ba, bizi ederra ninan, egia beha in erran, etxe huna, bena sei mila ta erdi nik bakarrik altxatu, ha, ha, ta geo ilaite at geio in beinin, ordian Jandona Martetan sartia, ilaite at geio in bainin, ta galdein nakonan nausi xaarrari, hak erran zaalaik, eta “ oai ze beha uk, eta zonbat behar hut paatu oai?” ta “ilaite orrendako?”, “ba, nik ina ixit ardi auta at bear duala”, “oh, ez, ez, ori ez duk ukain ez, ori ez duk ukain ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez”, “soizak, emain deat bi mila lira, kontent iz ola?” ta “bon, hala naio bauzu”, ta, hara, bi mila lira eman zianan ilaiteko, hak, zaharrak, ta are, hua, hua, ta gaztiak errana, ta gaztiak errana nahi banin egon, ondoko urtia, eta, to otoa (...), ondoko urtia emain zaala hemezorzi mila lira, nere baitan, puta, bana ni ezin egon, ni ezin egon, ta sobera aantzatiak gintunan, ta ordian ez nindunan joaiten aal, ta erran ninan ba nik ba, ba, or, eta, ba, bena, Benttan e ene beha baitzauden, han hek lanea joaiteko han e baitzien hamar, hamar laun, hamar gazte, hamar haur, alo, denak adin bertukoak, ta, alo, gure adin, erteko, emaztia re ni bano urte at... Ilaite at gaztio, bena bestenaz, segidan, ola, ta hek eta (...) joan zitunan ni esposatu-ta, denak joan zitunan, hek e sos itea, hol-ola, ni bezala. Mutil... Mutil joan gabe re bainakien, ezautzak inak nitien ordukotz, eta emaztegaia banien, bana behala, sos puxka at bear zelakotz, muthil joana, hartako joana nintzan mutil, ta geo, hara, (...) han e familia azkarra bazen, ta nausi xaharra hila, zernai izanik, sei urte artan, ta ama bera haur guziekilan, han gizonik ez zen segidan, ta, ordian, neska geienak, ezkondu nai zielakotz, ba etxean nai zutelakotz, besteik ez zunan abitzen nehor ezkontzea, ta ordian, ni hara joaitiaekin, ni esposatziaekilan, bestiak oro sos iteat alo, muthil ta neskato, ta denak ola, hartu zitenan beren alderdia, geo hara, ez dun ez nai den bezala, han aal den bezala, ta denak joaitiaekilan, bon, bi gazte bazitunan gelditu zienak ono, ono kominionia iteko zutenak, kominione aundia itek ozutenak hek, bi neska, hek zitunan bakarrik gelditu, bestiak oro joan zitunan, ta hek e gero beren aldian.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala